

14 GARREN MUGARRI EGUNA LARUNBATEAN

## Malmazartik Aparrain eta Martindegira arteko mugarrak ikusiko dira aurten

■ Ateera goizeko 08:00etan dute heldu eta hurrek Atsegindegin eta autobusak Malmazarrera eramango ditu guztiak ■ Mugari Eguna Mendiriz Mendik antolatzen du Udalak lagunduta.

DATORREN larunbatean egingo da Mugari Eguna Hernaniko mugak ikusiz. Helduek Malmazartik Martindegira arteko mugarrak begiratuko dituzte, Benta Txuri, Igoain, Epeleerka eta Añuan barrena. Aurten ez dira mugarriz mugari joango eta batzuk pasa egingo dituzte, ibilbidea luzeegia delako. Hernani eta Astigarraga, Errenteria eta Donostia arteko mugan joango dira.

Umeek, berriz, Malmazartik Aparrainera arteko ibilia egingo dute, Hernani, Errenteria eta Donostia arteko mugetan barrena. Mugari bat

UMEAK	HELDUAK
● Ibilbidea: Malmazar-Urdaburu magala-Aparrain	● Ibilbidea: Malmazar-Benta Txuri-Igoain-Epeleerka-Añua-Martindegi
● Izen ematea Langile, Urumea, Elizatxo, Inmaculada eta Txirita ikastetxeetan egin dute	● Izena eman beharrik ez dago. Larunbatean Atsegindegira azaldu goizeko 08:00etan Malmazarrera. Hamaiketako Udalak jartzen du.
● Hernaniko 120 bat hurrek hartuko dute parte aurtengo edizioan. Hamaiketako Udalak jartzen du.	

Urdaburu tontorrean dago, baina, ez dute igoko eta azpikaldetik pasako dira.

Ateera denek batera egingo dute 08:00etan Atsegindegitik eta autobusak Malmazarrera eramango ditu, Landarbaso aldera. Umeak ikastetxeetan izena eman dute eta helduek ez dute izena eman

beharrik. Mendiriz Mendikoek dagoeneko ibilbideari begiratu bat eman diote eta ez da galtzeko arriskurik izango.

**XVIgarren gizaldiko ohitura** Herriko mugarrak ikusteko ohitura aspaldikoa da Hernanin. Karlos I erregeak 1542an sinatutako Ordenantzetan

jartzen du zinegotziek herriko mugak pasa behar dituztela, kargua hartu eta sei egun pasa aurretik. Mugarrak ikustera San Migel eguna (irailak 29) pasata joaten ziren zinegotziak.

Urteetan galduta egondako ohitura da eta 1990ean berreskuratu zuten. □

## 10garren Albokari Topaketa asteburu honetan

■ Larunbatean 'Hala Dzipo' taldearen kontzertua dago Sandiusterrin eta igandean egun osoko festa.

LARUNBAT eta igandean Albokari Topaketa egingo da Hernanin. Egun honek dagoeneko izena hartu du, Euskal Herri guztiko albokariak elkartzeko egun seinatua baita. Udal Musika Eskolako Alboka taldea da antolatzailea eta beren esanetan topaketaren helburuak dira Albokari eta ikasleek elkar ezagutu eta beren lana elkar trukatzeko eta eskualdeko jendeari soinu tresna hau ezagutzeko bidea jartzea.

### 'Txilibrin' omendua

Albokari Topaketan norbait omen du ohi dute urtero eta aurten Silbestre Elezkano *Txilibrin* zena omenduko

dute. Elezkano albokari familiako azkeneko albokaria zen *Txilibrin* igorrearra. Urte askoan alboka jotzen ibilia eta albokak egiten aritua, orain dela gutxi hil da, 91 urterekin.

### Larunbat eta igande

Larunbatean *Hala Dzipo* taldearen kontzertua dago, 19:00etan Sandiusterrin. Igandean, 11:00etan kalejira egingo dute albokari guztiek; 12:30etan Tilosetan alboka kontzertua dago eta alboka egileek azoka jarriko dute; 14:30etan bazkaria dago Santa Barbara elkartearen eta 18:30etan albokariak kalez kale ibiliko dira. □



Bi albokari iazko Albokari Topaketan.

## Kiskia taldeak gaur egingo du Sagardo txapelketako finala

KISKIA taldea Hernani eta Astigarragako sagardozele eta sagardogile talde bateko osatzen du eta urtero sagardo txapelketa egiten dute inguruko sagardotegietako sagardoekin. Onenak juzgatu dituztenekin finala gaur egingo dute, bazkal orduan, Astigarragako Gure Izarra elkartearen. □

## Andragoton hitzaldiak gaur eta bihar

BI hitzaldi emango dituzte gaur eta bihar Andragoto ateneoan, Izpizua kalean. Gaur *Drogak noraino legalizatu* gaiaren bueltan hitzaldi-debatea izango da. Txus Congil Askagintzako partaidea eta Luis Otero LOA taldeko partaidea izango dira hizlari. Gaur, asteazkena, arratsaldeko 19:30etan. Bihar bestalde *Oporren bukaera eta berriro berdina* izenburua duen hitzaldia emango du Garbiñe Iraola naturopatak, arratsaldeko 19:30etan.

Bestalde, ostiralean antzerkia izango da Andragoto Ateneoan bertan. Interruptus taldeak *El Gran Cagaret con los 7 magnificos* antzezlanaren emango du. Arratsaldeko 20:00etan. □

## Begirale ikastarorako izen ematea zabalik

AISIALDIKO begirale ikastaroa Andoainen egingo da aurten eta Hernani eta inguruko herrikoentzat izango da. 18 urtetik gora dituzten eta euskeraz dakiten guztientzat da ikastaroa eta 200 ordukoa da, urritik maiatzera arte, larunbatetan. Izen ematea Hernaniko Udaletxeko Euskara Sailean egin liteke eta datorren astera arte luzatu dute apuntatzeko epea. Prezioa 130 euro Hernani, Andoain, Astigarraga, Urnieta eta Usurbilgoentzat eta 260 euro gainerakoentzat.

Informazio gehiago Euskera Zerbitzuan 943 337029. □

### IKASTAROAK

Eskulana • Arte Ederrak  
**AKURKI**  
Elkano 6 - Tel.: 943 55 72 56

EGURRA: Haur eta helduentzat logelak, altzari auxiliarrak, ...  
TELA: Manteleria, kojina, kortinak, erropak, ...  
SEDA: Zapiak, kortinak, kuadroak, ...  
ESKAIOLA, ALABASTRINA: Figurak, jaiotzak, ...

**BERRIKUNTZA: BIDRIO DEKORAZIOA**  
Goiz eta arratsalde - Haur eta helduentzat  
Irakasleak:  
IKER VALLE - OIHANA INSAUSTI - PEIO GOELLO

LABOREAK  
*Haizea*  
KORTSETEGI - MIHISEDENDA  
Kardaberaz 2 - Tel.: 943 55 55 19

**KORTINAK, TOAILAK, TAPETEAK, KUADROAK eta abar egiteko teknika ezberdinak erakusten ditugu:**

**Punto Cruz, Bainika, Gantxilloa, Bolillo, Punto erdia, zinta puntua eta abar...**

ENKARGUZKO LANAK ERE  
EGITEN DITUGU

### HERNANI TABERNA

**Tilosetako taberna berria**

- Gosariak
- Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Bokatak
- Hamburgesak
- Sandwichak

Terraza, telebista, ...

HERNANI TABERNA - Ezkiaga pasealekua -  
943 55 44 76 - HERNANI



## ■ KOTXE KARRERAK

# Zapiain turismotan hirugarren Urrakin, irabazletik segundo bakarrera

■ Pilotu hernaniarra oso gustora dago Renault Maxi-Megane kotxe berriaren erantzunarekin ■ Saillkapen orokorrean, berriz, 8garren egin zuen.

URRAKIKO Igoera joan den igandean jokatu da eta Josetxo Zapiain hernaniarra goiko muturrean ibili da. Zapiain 8garren gelditu da saillkapenean, eta turismoetan, berriz, 3garren egin du Aitor Ramirezengandik segundo eskasera. Probako irabazle Aitor Zabaleta izan da eta bigarren Andres Vilariño. Guztira 60 bat parte hartzaile izan ziren eta Josetxo Zapiainen anaia, Joxan Zapiain, 17garren gelditu da, BMWarekin.



Joxetxo Zapiain pilotua.

### Hobetzeko asmoa

Joxetxo Zapiain gustora dago Urrakin egindako 8garren postuarekin, eta aurrera hobeto ibiltzeko esperantza du: "postu eta denbora ona egin ditut, baina, kotxeari eskua hartu behar diot oraindik eta gero eta hobeto ibiliko naizela pentsatzen dut". Datorren urteari begira rally eta rally-sprint-etan parte hartuko duela dio Zapiainek eta uste du lehenengo 3retan ibiltzeko moduan izango dela. □



Karabelgo zubi aurrean dauden bi etxeak botako dituzte.

## Balantxan 2 etxe botatzeko baimena eman du Gobernu Batzordeak

■ Etxebizitzak egiteko asmoa dago Balantxan ■ Beste 8 puntu ere onartu zituen atzo Gobernu Batzordeak.

GOBERNU Batzordea bildu zen atzo Udaletxean eta 9 puntu eztabaidatu zituzten. Bata Balantxan bi etxe botatzeko eskaera zen, garai batean zerra eta herreria izandako bi etxeak alegia. Hor etxebizitza berriak egiteko asmoa dago eta Diputazioaren baimena falta da etxeak egiten hasteko. Gehienez bost etxe izango dira eta 20 etxebizitza. Denak 2 habitaziookoak badira 25 etxebizitza egiteko baimena dago.

### Ereñotzuko terrenoa

Beste puntuetako bat Ereñotzuko etxebizitzak joango diren terrenoen jabe aldaketa onartzea zen. Terreno horietan babes ofizialeko 12 bizitza dijoaz eta beste 12 bizitza ere bai. Bestalde, Akarregiko poligonoko lehen proiektutik aldaketa batzuk izan dira bariantea eta Abiadura Haundiko Trena bertatik pasatzen direlako eta Gobernu Batzordeak proiektuko base eta estatutu aldaketak onartu zituen. □



Garagardotegi berria martxan jarriko duen lan taldea. Azken ukituak ematen ari dira.

## 'Gunea' garagardotegi berria bihar inauguratuko dute

■ Arratsaldeko 20:00etatik 22:00etara da inaugurazioa ■ 25 zerbeza klasetik gora, garagardotegiko menua, eguneroko menua eta abar izango dira Gunean.

GUNEA garagardotegi berriari azken ukituak ematen ari dira eta bihar inauguratuko dute arratsaldeko 20:00etatik 22:00etara. *Gunean* aukeran izango dira garagardo klase ezagunak, zerbezeriako menua, eguneroko menuak eta garagardotegiko jakiak: kodiloa,

saltxitxak, *fondua*, *pierradea*, entsalada bereziak...Jangelak guztira 60 bat laguntzako tokia dauka, eta lokal osoak 300 m karratu inguru ditu.

### 25 garagardotik gora

Zerbeza klase asko probatzeko aukera izango da Gunean,

Alemana, Belga, Ingelesa... Kañerotik bi kolpetan serbituko dute, 5 graduko tenperaturan; garagardoa bere puntuan. Establezimendu berria 09:30etatik egongo da zabalik.

Gunea Argarain kalean dago, Zinkoneatik Antziolara bidean. □

**UDAL LIBURUTEGIKO INFORMATIKA IKASTAROA**

**WINDOWS 98 (4 ordu)**  
**WORD 2000 (8 ordu)**  
**INTERNET (8 ordu)**

Urriaren 6tik 10era (eus.)  
eta 13tik 17ra (gazt.)  
Azaroaren 3tik 7ra (eus.)  
eta 10tik 14ra (gazt.)

Informazioa: Biteri Kultur Etxea  
Ordutegia: 16etatik 21etara  
Tlf: 943551000

Laguntzaileak:

Hernaniko Osasun eta Gizarte Ongintzarako Udala Patronatua

Europako Gizarte Fonda

**HERNANIKO UDAL EUSKALTEGIA**

03-04 IKASTURTEA:  
EUSKALDUNTZE,  
ALFABETATZE eta EGA.  
Maila guztiak. Ikastaro bereziak gurasoentzat.

**Erritmoak:** Erritmo aukera zabal.  
**Matrikula:** Irailaren 8tik 26ra.  
**Diru-laguntzak** ere badauzkagu.  
**16 urtez gorakoentzat.**  
**Galde ezazu euskaltegian**  
(Karobieta 63, anbulatorio zaharrea!)  
e-mail: [euskaltegi@hernani.net](mailto:euskaltegi@hernani.net)  
☎ 943 331896

**HERNANIKO UDALA**

*Arrandegia*

**Mari Fe**

Nagusia 36 | Orkolaga 17  
943 550 489 | 943 552 741

**HERNANI**

**ZERBITZUAK**

☎ TELEFONOAK	☎ FARMAZIAK
☎ Taxiak: 943 550093	☎ Egunez: Gomez Justel
☎ Udaltzaingoa: 943 333288	Kale Nagusia 14
☎ DYA: 943 464622	☎ 943 554892
☎ Autobusak: 943 556662	☎ Gaez: Iturralde
☎ Anbulatorioa: 943 006666	Usurbil. Poligono 13, 9
☎ Jokalari anonimoak: 943 331103	☎ 943 363395

**IRAGARKI MERKEAK**

Alokatzeko pisu bat behar dugu Hernanin. Deitu: **659 76 80 65**

**HERNANI HIZKUNTZAK - ENGLISH**  
Gure Ingelesetxea

Zorionak! Aitziber (bikain), Gari, Ainara, Mikel (bikain), Edurne, Harri, Paul, Jose Luis eta Unai Cambridge FCE edo Advanced azterketa gainditzeagatik.

**MATRIKULA ZABALIK**  
Deitu Alan / Joe ☎ 943 33 11 08 - KALE NAGUSIA 41, 1